

# Gregorio Arruebarrenak argitara gabe utzi zuen eskuskribu batez zembait ohar

Jose Maria Arrue jaun apaizak, Julio Urkixoren oroitzapenean, bere aitonarekin Gregorio Arruebarrenaren lan bat eskaini zion Euskaltzaindiari 1971.eko Irailaren 28an. Eskaintza horren berri Urriko batzarrean eman zen, lan hora gramatika bat-tzat harturik.

Liburu hori 16 × 22 zentimetrotako da, 160 orrialde ingurukoa eta 4 aditz taula daduzka, orrien neurria baino handiagokoak, eta horregatik ongi tolestuak. Orrialde bakotzean 22 lerro ditu, kaligrafia dotoreaz eginak baina ez du numeraziorik.

Obra honek ez du bat ere izenik, baina euskal aditzari buruz egindako estudio bat da, izan. Lan hau ezezaguna denez gero eta aditzaren batasunerako interesgarri delakoan, hona dakart haren zenbait puntu ohargarrien komentario bat.

Funtsean Bizkaiko aditzaren estudio bat da. Harrigarri irudi dakikegu, noski, gipuzkoar batek aditzaren arazoan bizkaieraz honelakoak esatea, baina Ernaniko itzultzale porrokatu honek honelako esaldi hauez ematen dio hasiera bere obra honi:

*«No sin grande estudio y premeditación hemos adoptado para la demostración práctica de las 206, conjugaciones del verbo vascongado el dialecto vizcaino; pues este es el que entre los otros cuatro conocidos en España y Francia tiene raíces más filosóficas, más ordenadas y regulares, y la conjugación más ajustada y arreglada a ellas sin discrepar en ningún punto.»*

Hasieran azaltzen du nola euskaraz bi aditz mota besterik ez dauden, ajente bakardunak, berak *sencillos* deitzen dituenak, eta ajente bidunak, *dobles* haren hitzez. Geroago aditz ximple horietatik nola iragaten den bikoitzetara esplikatzen dauku, honelako eskema batez:

| <i>Sencillos</i>       |                   | <i>Dobles</i>    |                     |
|------------------------|-------------------|------------------|---------------------|
| <i>Vascuence</i>       | <i>Castellano</i> | <i>Vascuence</i> | <i>Castellano</i>   |
| Eguiñ ... ... ... ...  | hacer             | Eraguin ... ...  | hacer que otro haga |
| Ibilli ... ... ... ... | andar             | Erabilli ... ... | hacer que otro ande |

## XABIER KINTANAK

| <i>Sencillos</i>       |                   | <i>Dobles</i>    |                        |
|------------------------|-------------------|------------------|------------------------|
| <i>Vascuence</i>       | <i>Castellano</i> | <i>Vascuence</i> | <i>Castellano</i>      |
| Icasí ... ... ... ...  | aprender          | Iracatsi ... ... | hacer que otro aprenda |
| Icusi ... ... ... ...  | ver               | Iracutsi ... ... | hacer que otro vea     |
| Ecarri ... ... ... ... | traer             | Eracarri ... ... | hacer que otro traiga  |
| Igarri ... ... ... ... | acertar           | Iragarri ... ... | hacer que otro acierte |

Ondoren edozein hitzetatik —bai eta deklinatueta — euskarak aditzak sorterazteko duen ahalmenaz mintzo zaiku, eta beste zerrenda bat dakar, erdaraz jartzen dituen itzulpenengatik —nolabait irakurle gaztelauari ideia bat aditzera emateko asmoz—, osorik jartzea merezi duena:

| <i>Voces<br/>vascongadas</i> | <i>Traducción<br/>literal</i> | <i>Significación<br/>castellana</i> |
|------------------------------|-------------------------------|-------------------------------------|
| Gueuretu ... ... ... ...     | nostraizar ... ... ... ...    | Hacer nuestra la cosa               |
| Ceretu ... ... ... ...       | usteizar ... ... ... ...      | Hacer de V. la cosa                 |
| Neretu ... ... ... ...       | mioizar ... ... ... ...       | Hacer mia la cosa                   |
| Guizondu ... ... ... ...     | hombrearse ... ... ... ...    | Hacerse hombre                      |
| Auzpeztu ... ... ... ...     | boquibajizar ... ... ... ...  | Ponerse boca abajo                  |
| Urtu ... ... ... ...         | aguarse ... ... ... ...       | Derretir                            |
| Berandutu ... ... ... ...    | atardarse ... ... ... ...     | Hacerse tarde                       |
| Aranzatu ... ... ... ...     | haciallizar ... ... ... ...   | Llevar hacia allí                   |
| Orrunzatu ... ... ... ...    | hacia ahizar ... ... ... ...  | Llevar hacia ahí                    |

Ez du euskarak duen ahalmen honetaz luzaroegi hitzik egiten, zeren, berak dioenez, lan honetarako hiztegi oso bat beharko bailitzateke.

Aditzaren moduak dakartza hurrengo:

|       |                               |                 |
|-------|-------------------------------|-----------------|
| MODOS | Infinitivo ... ... ... ...    | Ill             |
|       | Indicativo ... ... ... ...    | Ill dot         |
|       | Habitual ... ... ... ...      | Ill oi dot      |
|       | Potencial ... ... ... ...     | Ill al dot      |
|       | Voluntario ... ... ... ...    | Ill daiquet     |
|       | Necesario ... ... ... ...     | Ill nai dot     |
|       | Forzoso ... ... ... ...       | Ill erazo dot   |
|       | Imperativo ... ... ... ...    | Ill eraguin dot |
|       | Subjuntivo ... ... ... ...    | Ill daguidan    |
|       | Optativo ... ... ... ...      | Illgo neuque    |
|       | Penitudinario ... ... ... ... | Ill baneu       |

## GREGORIO ARRUEBARRENAK ARGITARA GABE UTZI ZUEN...

*Habitual, Potencial eta Forzoso* deitzen dituen forma bakoitzak zein matiz duen —edukitzekotan— esplikatzen du hurrengo.

Datorren klasifikazioa denborena da. Hiru denbora jartzen ditu: Presentea, Iragana (*pretérito*) eta Etorkizuneko (*futuro*). Denbora bakoitzean bi atal jartzen du, erreala (*real*) eta *apostrófico* deitzen duena, beronetan ekintzá gogora erazia dela adierazteko. Honela:

|         |           |                         |        |                  |
|---------|-----------|-------------------------|--------|------------------|
| TIEMPOS | Presente  | { Real<br>Apostrófico } | Illten | { dot<br>neban } |
|         | Pretérito | { Real<br>Apostrófico } | Ill    | { dot<br>neban } |
|         | Futuro    | { Real<br>Apostrófico } | Illgo  | { dot<br>neban } |

Hasierako eskeman aipaturiko modu guztiei aplikatzen die erreala *apostrofiko* delako berezketa hori, ordenazio zeharo logiko batez. Egileak sarritan aipatzen du euskararen (*eusquera* edo *et euskera*, haren grafiaz) ahalmen filosofiko, zuhur eta miragarria.

Inperatiboan, presenteko eta etorkizuneko formak jartzen ditu:

### Presente

Ill-eguizu ... ... ... Mátelo V. ahora

### Futuro

Ill-eguiquezu ... ... ... Mátelo V. después

Optatiboan, grekoen hizkuntzari eskas eta zentzu gutiko eritzirik, zeren «*no podemos desear sino lo futuro*», berak dakien forma bakarra dakar:

Futuro: Illgo neuque ... ... ... Yo lo matará o mataría

Modo penitidiario delakoan, ordea hiur denbora osoak ematen dauzkigu:

*Presente*: Illten baneu ... ... ... Si yo lo matara o matase ahora

*Pretérito*: Ill baneu ... ... ... Si yo lo hubiera o hubiese matado

*Futuro*: Illgo baneu ... ... ... Si yo lo matara o matase después

Astarloa dakarkigu honetaz, beronek, euskarak besteko denbora *penitidinario*-rik ez duela ezein beste hizkuntzak esaten zuela aipatuaz.

Geroago *ete* eta *edo* hizkiez mintzaten da, berauek aditzari ematen dioten *dudazko* edo eta *gertakizuneko* kutsua argiro seinalatzen duelarik:

Cierto ... ... ... ... Ill dot

Dudososo ... ... ... ... Ill ete dot

Probable ... ... ... ... Ill edo dot

## XABIER KINTANAK

Barregura ematen daukute —Astarloari jarraikiz— letra bakoitzari eman nahi dion esangura filosofikoaren azalpen burutsuek. Hauen araez, denek dute gizonaren barneko joera naturalengan beren arrazoizko esplikazioa, eta honetan, argiro nabari da euskarak munduko beste hizkuntzen gainetik duen abantaila.

### Aditzen pertsonak

Zortzi dira Arruebarrenarentzat. Bost singularrean: 1) *Ill dot*, 2) (*cortés*) *Ill dozu*, 2) (*femenina*) *Ill don*, 2) (*masculina*) *Ill doc*, 3) *Ill dau*; eta hiru pluralean: 1) *Ill dogu*, 2) *Ill dozubee*, 3) *Ill daubee*.

Hurrengo orrialdeetan aditz formak hasten da jartzen eta zerrenda bakoitzaren ondoan horien arrazoizko esplikazioa ematen du. Batzuetan azalpenok zuhurrak dira, ia geure egunotako gramatika-liburueta irakurri ditugunak bezalakoak, eta beste batzuetan, aldiz, filosofia espekulatibora lerratzen da.

Egileak esan bezala, liburuan erabiltzen den aditzá bizkaiera da, Markinakoa, are zehatzagoki, eta beronetan, bistan dago, erraz susma daiteke bizkaiera idatziarenaganako errespeto bat. Hala ere, bere teoriak egiaztatzeko —zerrendak ahalik eta erregularrenik ager daitezen, batez ere— ez du bat ere lotsarik forma guti usatuak jartzeko, batzuetan halakoak non erabiltzen diren esaten badu ere. Honela, *zaitu* eta *gaitu* ordez jartzen dituenak justifizatzen, honela dio: «...ill zau, (...) ill gau, (...), se usan en la villa de Oñate y pueblos limítrofes, sin embargo no podemos menos de adoptarlas por ser legítimas y las únicas que se hallan formadas según la índole de nuestro idioma. Poco tenemos que cansarnos en demostrarlo».

Gure lan honetan, interesgarri direlakoan, Zarauzko eskolamaisuaren aditz forma guztiak ezartzen saiatuko gara, oso kasu bereziren batetan ezik, komentariorik jarri gabe.

### *Conjugaciones activas puras* (Gaurko aktibo-pasiboak)

|     |                 |       |                          |                      |
|-----|-----------------|-------|--------------------------|----------------------|
| III | 1. <sup>a</sup> | au    | .... .... .... .... .... | Aquel te ha muerto   |
|     | 2. <sup>a</sup> | au-na | .... .... .... .... .... | Aquel te ha muerto   |
|     | 3. <sup>a</sup> | z-au  | .... .... .... .... .... | Aquel ha muerto a V. |
|     | 4. <sup>a</sup> | n-au  | .... .... .... .... .... | Aquel me ha muerto   |
|     | 5. <sup>a</sup> | d-au  | .... .... .... .... .... | Aquel lo ha muerto   |
|     | 6. <sup>a</sup> | z-aуз | .... .... .... .... .... | Aquel os ha muerto   |
|     | 7. <sup>a</sup> | g-aуз | .... .... .... .... .... | Aquel nos ha muerto  |
|     | 8. <sup>a</sup> | d-aуз | .... .... .... .... .... | Aquel los ha muerto  |

GREGORIO ARRUEBARRENAK ARGITARA GABE UTZI ZUEN...

*Conjugaciones activas puras familiares (Hikako erak)*

Femeninas

- |     |  |
|-----|--|
| Ill | 9. <sup>a</sup> jon ... ... ... ... Aquel lo ha muerto<br>10. najon ... ... ... ... Aquel me ha muerto<br>11. jozan ... ... ... ... Aquel los ha muerto<br>12. gajon ... ... ... ... Aquel nos ha muerto |
|     | <i>Masculinas</i>  |
|     | 13. joc ... ... ... ... Aquel lo ha muerto<br>14. najoc ... ... ... ... Aquel me ha muerto<br>15. jozac ... ... ... ... Aquel los ha muerto<br>16. gajoc ... ... ... ... Aquel nos ha muerto             |

*Activas puras recipientes (aktibo-pasibo-datiboak) Corteses*

*Ill au*

- |     |   |
|-----|---|
| Ill | 17. austा ... ... ... ... Aquel te me ha muerto<br>18. autsa ... ... ... ... Aquel te le ha muerto<br>19. auscu ... ... ... ... Aquel te nos ha muerto<br>20. autsee ... ... ... ... Aquel te les ha muerto         |
|     | <i>Ill auna</i>   |
|     | 21. austana ... ... ... ... Aquel te me ha muerto<br>22. autsana ... ... ... ... Aquel te le ha muerto<br>23. auscuna ... ... ... ... Aquel te nos ha muerto<br>24. autseena ... ... ... ... Aquel te les ha muerto |

*Ill zau*

- |     |  |
|-----|--|
| Ill | 25. zausta ... ... ... ... Aquel te me ha muerto<br>26. zautza ( <i>sic</i> ) ... ... ... Aquel te le ha muerto<br>27. zauscu ... ... ... ... Aquel te nos ha muerto<br>28. zautsee ... ... ... ... Aquel te les ha muerto |
|-----|--|

*Ill nau*

- |     |  |
|-----|--|
| Ill | 29. nauba ... ... ... ... Aquel me te ha muerto<br>30. naunaa ... ... ... ... Aquel me te ha muerto<br>31. nautsu ... ... ... ... Aquel me te ha muerto<br>32. nautsa ... ... ... ... Aquel me le ha muerto<br>33. nautsubee ... ... ... ... Aquel me os ha muerto<br>34. nautsee ... ... ... ... Aquel me les ha muerto |
|-----|--|

XABIER KINTANAK

*Ill dau*

- |     |  |
|-----|--|
| III | 35. deubaa ... ... ... ... Aquel lo te ha muerto<br>36. deunaa ... ... ... ... Aquel lo te ha muerto<br>37. deutsu ... ... ... ... Aquel lo te ha muerto<br>38. deusta ... ... ... ... Aquel lo me ha muerto<br>39. deutsa ... ... ... ... Aquel lo le ha muerto<br>40. deutsubee ... ... ... ... Aquel lo os ha muerto<br>41. deuscu ... ... ... ... Aquel lo nos ha muerto<br>42. deutsee ... ... ... ... Aquel lo les ha muerto |
|-----|--|

*Ill zauz*

- |     |  |
|-----|--|
| III | 43. zauztaz ( <i>sic</i> ) ... ... Aquel os me ha muerto<br>44. zautzaz ( <i>sic</i> ) ... ... Aquel os le ha muerto<br>45. zauzcus ( <i>sic</i> ) ... ... Aquel os nos ha muerto<br>46. zautseez ... ... ... ... Aquel os les ha muerto |
|-----|--|

*Ill gau*

- |     |   |
|-----|---|
| III | 47. gaubaa ... ... ... ... Aquel nos te ha muerto<br>48. gaunaa ... ... ... ... Aquel nos te ha muerto<br>49. gautsu ... ... ... ... Aquel nos te ha muerto<br>50. gautsa ... ... ... ... Aquel nos le ha muerto<br>51. gautsue ... ... ... ... Aquel nos os ha muerto<br>52. gautsee ... ... ... ... Aquel nos les ha muerto |
|-----|---|

*Ill dauz*

- |     |  |
|-----|--|
| III | 53. deubaaz ... ... ... ... Aquel te los ha muerto<br>54. deunaaz ... ... ... ... Aquel te los ha muerto<br>55. deutsuez ( <i>sic</i> ) ... ... Aquel te los ha muerto<br>56. deustaz ... ... ... ... Aquel me los ha muerto<br>57. deutsaz ... ... ... ... Aquel se los ha muerto<br>58. deutsubez ... ... ... ... Aquel os los ha muerto<br>59. deuscuz ... ... ... ... Aquel nos los ha muerto<br>60. deutseez ... ... ... ... Aquel se los ha muerto |
|-----|--|

Agian irakurlea konturatu denez, Arruebarrena jaunak erdarazko itzul-pena alderantziz jarria du izenordainetan, hots, *aquel lo te ha muerto* dio, *aquel te lo ha muerto* esan beharrean, baina azken zerrendan (*ill dauz-enean*), zuzendu du joera hori. Liburuaren hurrengo orrialdeetan forma asko zuzenduak daude, eta textuan ikusten denez, lehen eskribaturikoa tintaren kontrako likidoren batez ezabatua dago, gainean bestela idatzirik.

## GREGORIO ARRUEBARRENAK ARGITARA GABE UTZI ZUEN...

Are interesanteagoa ikustea, bestalde, nola lehen eta bigarren pertsona pasiboen kasuetan aditzaren forma *nau-*, *au-*, *gau-* eta *zau-* kontserbatzen duen, hots, beti -*a*- batekin, hirugarren pertsonazkoen, aldiz, *deu-* jarriaz, hau da, Bizkaiko era normalaren gisara.

Egitada honetatik konklusio biotatik bat atera daiteke, nik uste: a) forma horik analogiaz baliaturik egileak berak sorteraziak zirela, edo eta, b) lehen eta bigarren pertsonazko pasiboetan aditzaren sustraia -*eu-* gabe, -*au-* gelditzen dela.

Kontsidera ditzagun posibletasun biok astiroago.

Batetik, bistan dago *gautsu*, *zausta* eta gisa honetako formak, pluraleko -*z* gabe, oso susmagariak direla. Agian *gautsuz*, *zaustaz* eta halakoak fidagarriagoak ziratekeen; dena dela, Oinati inguruko *gau* eta *zau* direlako horien kausaz, litekeena da ernaniarrak -*a*- horietatik gabetzea. Ba dago, ordea, beste lekukotasun bat, aita Mateo Zabala frantziskotarraren<sup>1</sup>, orain ehun eta berrogei eta hamar urte inguru, antzeko formak bildu zituenarena. Azkuek berak antzeko formak jaso zituen Arratian, baina *nautsu* (edo *nautzu*) batek ez zukeen ezer frogatuko, antza denez Dima inguruko herrietan *dautsu* (= *dautzu*) ere esaten omen delako.

Leizarragak, bestalde, *naraua-*, *grauzkio*, *zarauzkiotet* ba ditu gutierrez, eta bitan bederen, *na-* eta *za-* argiro agertzen dira, *grau-* horren barnean gordetzen den beste bokala -*a*- besterik ez dela pentsatzeko bide segur bat ematen daukutenak. Honetan, ordea, arazoa ez litzateke hain garbi geldituko, zeren hirugarren pertsona pasiboekin konparatzean, beti *drautazu*, *drauzut* eta honelakoak arkitzen baitira.

Dakigunetik, forma biak —Etxapare lekuko—, bai *darautazu* eta bai *derautazu*, bizi zirelarik, ez da erraz igartzea zeinen laburpena zitekeen *drautazu* delako hori. Baino oraino urrunago joan gaitezke. Leizarragak beti darabila iraganean *zerautan* eta era honetakorik, eta gauza jakina denez, presentean *darautazu* eta *darotazu* gisako formak darabiltzaten idazleek, iraganean, aldiz, *zarautan* edo eta *zarotan* modukoak ohi dakartzate. Beraz, ez dut uste ausartegi dela esatea iraganeko *zerautan* batek presentean *deraut* bat (ez *daraut* bat) nahi duela.

(1) Aita Mateo Zabalak, 1829.eko Otsailaren 17an, F. L. Lécluse jaunari karta interesgarri bat egin zion aditzaren arazo honetaz: *103 conjugaciones del presente perfecto de indicativo en dialecto vizcaíno, muestra de los 206 presentes de indicativo que da al Bascuence, D. Pablo Pedro de Astarloa* (sic). Ikus honetarako *III Euskera* (1922, II.2. 36-64. orrial). Bilbao, 1922. Beronetan ikusten denez, bai Arruebarrenak eta bai Zabalak Astarloaren *Discursos filosóficos* delakoan edan zuten, eta agian Ernaniko eskolamaisuak, Zarautzen bizi izan zenez gero, Zabala frantziskotarraren lanak ikusteko parada ukana zukeen, berau ere bertan bizi izan baitzen, beraz zenbait puntutan ados egotea ez dateke harrigarriegi.

## XABIER KINTANAK

Honela ba, datiboaren marka den -e- hori (cfr. *daroat* eta *deroat*, *dagidan* eta *degidan...*) hirugarren pertsonetarako erabiliko litzateke, soil soilki, beste formetara, berauen urritasunagatik, fenomeno hau pasatu gabe.

Agian berezketa hau beste honekin lotu beharra legoke, hots, lehen eta bigarren pertsona pasiboen karakteristiká, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ezik, *n-*, *b-*, *g-* eta *z-* gabe, beti *na-*, *ba-*, *ga-*, *za-* delakoarekin, eta berau hirugarren pertsonák -a- hori erraz galdu arren, Bizkaian izan ezik.

Ikus, honetaz, hurrengo eskema hau:

| <i>Bizkaia</i>             | <i>Gipuzkoa-Nafarroa-Lapurdi</i> | <i>N. Beherea eta Zuberoa</i> |
|----------------------------|----------------------------------|-------------------------------|
| <i>naiz</i> ( <i>nax</i> ) | <i>naiz</i>                      | <i>niz</i>                    |
| <i>nau</i>                 | <i>nau</i>                       | <i>nu</i> ( <i>nü</i> )       |
| <i>gaitu</i>               | <i>gaitu</i>                     | <i>gitu</i> ( <i>güütü</i> )  |
| <i>dau</i>                 | <i>du</i>                        | <i>du</i> ( <i>dü</i> )       |
| <i>ditu</i>                | <i>ditu</i>                      | <i>ditu</i> ( <i>dütü</i> )   |

Bizkaian bertan ere, ikusten denez, pluralean bederen, -a- hori galdu egiten da, *ditu* agertuaz, eta ez, *gaitu* edo *zaitu*-ekiko antzaz, \**daitu*-rik<sup>2</sup>

Forma guztiotatik erregularrenak formatuak, literaturatik beste arrazoi praktiko batzuengatik egotzirik egon arren, Nafarroa Beherekoak edo eta Zuberoakoak dirateke. Agian hauk ziratekeen jatorrenak, eta -a- dun forma horik geroago sortuak.

Arruebarrenaren aditz era hauk, beraz, ezin jo ditzakegu, beste gabe, asmatutzat, gutitan erabiliriko era bitxi batzuk-tzat baizik.

Eta beste gabe, hikako formak ematera iragaten gara:

### *Ill jon*

- III { 61. jaustan (*sic*) ... ... Aquel me lo ha muerto  
 62. jeutsan ... ... ... Aquel se lo ha muerto  
 63. jeuscun ... ... ... Aquel nos lo ha muerto  
 64. geustseen (*sic*) ... ... Aquel les los ha muerto

### *Ill naison*

- III { 65. najeutsan ... ... ... Aquel me lo ha muerto  
 66. najeutseen ... ... ... Aquel me los ha muerto

(2) Mungia aldean, entzun dudanez, *ditu* gabe *deitu* (<\**daitu*) entzuten da, baina, ene irudiko, ez dateke forma zahar bat, baizik eta *dauz* moduko era formatu berri pitxi bat, *gaitu* eta *zaitu*-ekiko analogiaz sortua. Dena dela, bizkaierak hasierako kontsonante pertsona-markatzailaren ondoren —a— hori jartzeko duen joerá nabariro erakusten dauku.

GREGORIO ARRUEBARRENAK ARGITARA GABE UTZI ZUEN...

*Ill jozan*

- III { 67. jeustazan ... ... ... Aquel me los ha muerto  
 68. jeutsazan ... ... ... Aquel se los ha muerto  
 69. jeuscuzan ... ... ... Aquel nos los ha muerto  
 70. jeutseezan ... ... ... Aquel les los ha muerto

*Ill gajon*

- III { 71. gajeutsan ... ... ... Aquel nos le ha muerto  
 72. gajeutseen ... ... ... Aquel nos les ha muerto

*Ill joc*

- III { 73. jeustac ... ... ... ... Aquel me lo ha muerto  
 74. jeutsac ... ... ... ... Aquel se lo ha muerto  
 75. jeuscuc ... ... ... ... Aquel nos lo ha muerto  
 76. jeutseec ... ... ... ... Aquel les los ha muerto

*Ill najoc*

- III { 77. najeutsac ... ... ... ... Aquel me lo ha muerto  
 78. najeutseec ... ... ... ... Aquel me los ha muerto

*Ill jozac*

- III { 79. jeustazac ... ... ... ... Aquel los me ha muerto  
 80. jeutsazac ... ... ... ... Aquel los le ha muerto  
 81. jeuscuzac ... ... ... ... Aquel los nos ha muerto  
 82. jeuntseezac (*sic*) ... ... ... ... Aquel los les ha muerto

*Ill gajoc*

- III { 83. gajeutsac ... ... ... ... Aquel nos le ha muerto  
 84. gajeutseec ... ... ... ... Aquel nos les ha muerto

Honen ondoren forma hauen azalpena dakar, nahiko xeheki gainera, eta gero beste forma pasibo eta pasibo-datibo haukekin hasten da:

*Activas mixtas (*sic*)*

PURAS

- III { 85. da ... ... ... ... ... Aquel se ha muerto: cortés  
 86. donaa ... ... ... ... ... Aquel se ha muerto: femenina  
 87. duaa ... ... ... ... ... Aquel se ha muerto: masculina

XABIER KINTANAK

## **RECIPIENTES**

|     |  |
|-----|--|
| III | 88. jac ... ... ... ... Aquel te se ha muerto<br>89. jan ... ... ... ... Aquel te se ha muerto<br>90. jatzu ... ... ... ... Aquel te se ha muerto<br>91. jat ... ... ... ... Aquel se me ha muerto<br>92. jaca ... ... ... ... Aquel se le ha muerto<br>93. jatzubee ... ... ... ... Aquel se os ha muerto<br>94. jacu ... ... ... ... Aquel se nos ha muerto<br>95. jaquee ... ... ... ... Aquel se les ha muerto |
|-----|--|

## *Femeninas*

III { 96. jatan .... .... .... Aquel se me ha muerto  
 97. jacan .... .... .... Aquel se le ha muerto  
 98. jacun .... .... .... Aquel se nos ha muerto  
 99. jaqueen .... .... .... Aquel se les ha muerto

### *Masculinas*

III { 100. jatac .... .... .... Aquel se me ha muerto  
 101. jacac .... .... .... Aquel se le ha muerto  
 102. jacuc .... .... .... Aquel se nos ha muerto  
 103. jaqueec .... .... .... Aquel se les ha muerto

## Conjugaciones pasivas

Titulu honekin orain arte emandako aditzerak berak birjartzen ditu egileak, differentzia bakarra, *ill* gabe, *illa*, edo *illac* ezartzea dela. Estate batez: *illa da*, *illa donaa*, *illa duaa*..., honetara 206 «konjugazio»tara ailegatuaz. Irakurleari aspergarri gerta dakizkiokeelakoan, ez ditugu hemen berriro ezarri, aski baitu horretarako orain arteko guztiei *-a* edo eta *-ak* bana ipintzeaz.

Kuriositate bezala, eskolamaisuaren kontuak jar ditzakegu berton, haren us-tez aditzaren formak —laguntzaileak— zenbat ziren ikusteko:

*Gipuzkerazko aditzerak.*—Egilea, oinharritzat Bizkaiko aditza hartu baldin badu ere, ondoren, aditz era berak gipuzkeraz ematen saiatzen da. Parte

## GREGORIO ARRUEBARRENAK ARGITARA GABE UTZI ZUEN...

hau, ordea, aditz forma askotan, tatrixaduraz betea dago, eta maiz askotan tatxatura bat agertzen da lehenago korrejituriko beste formabaten gainean. Ezagun da idazleak ez zuela bat ere segurantzari zenbait formatan. Segurtasun falta hau *nautsu*, *zausta* eta gisa honetako formetan nabari da ederkienik.

Honen ondoren gipuzkerazko aditzerok jartzen ditugu, baina itzulpenik gabe, are laburkiago geldi dadin. Zenbaki banaz ezarrita daudenez gero, bestalde, berez aski klar ez baldin badira, errax dateke esangura topatzea aurrekoe-kiko konparazioz:

### *Las 16 activas puras*

|                |             |              |              |
|----------------|-------------|--------------|--------------|
| 1. au          | 5. du       | 9. diñ       | 13. dic      |
| 2. aun         | 6. zaituzte | 10. nachion  | 14. nachioc  |
| 3. zaitu (zau) | 7. gaitu    | 11. zetiñ    | 15. cetic    |
| 4. nau         | 8. ditu     | 12. gachetin | 16. gachetic |

### *Las 44 conjugaciones activas puras recipientes*

Oharra: parentesis arteko formak tatrixaturik azaltzen direnak dira.

|                 |                |                 |                  |
|-----------------|----------------|-----------------|------------------|
| 17. (au(s)quit) | 19. au(s)quigu | 21. (aunquit)   | 23. (aunquigu)   |
| autzat          |                | (autzadan)      | auquigun         |
| 18. au(s)quo    | 20. autzaquie  | 22. (aunquo)    | 24. (aunquie)    |
|                 | (auquie)       | autzaquion      | auquien          |
| <hr/>           |                |                 |                  |
| 25. zausquit    | 26. zausquo    | 27. zauscu      | 28. zausquie     |
| <hr/>           |                |                 |                  |
| 29. (nauquic)   | 31. nauquizu   | 33. nauquizue   |                  |
| nautzac         |                |                 |                  |
| 30. nauquiñ     | 32. nauquio    | 34. nauquie     |                  |
| <hr/>           |                |                 |                  |
| 35. dic         | 37. dizu       | 39. dio         | 41. digu         |
| 36. diñ         | 38. dit        | 40. dizue       | 42. diezu (diee) |
| <hr/>           |                |                 |                  |
| 43. zauzquitet  | 44. zauzquo    | 45. zauzquigu   | 46. zauzquie     |
| <hr/>           |                |                 |                  |
| 47. gauzquic    | 49. gauzquitzu | 51. gauzquitzue |                  |
| 48. gauzquin    | 50. gauzquio   | 52. gauzquie    |                  |
| <hr/>           |                |                 |                  |

XABIER KINTANAK

|               |               |               |                    |
|---------------|---------------|---------------|--------------------|
| 53. dizquic   | 55. dizquitzu | 57. dizquio   | 59. dizquigu       |
| 54. dizquiñ   | 56. dizquit   | 58. dizquitue | 60. dizquiee       |
| 61. cidan     | 62. cion      | 63. cigun     | 64. cieten         |
|               |               |               |                    |
|               | 65. nauquion  | 66. nauquien  |                    |
|               |               |               |                    |
| 67. zizquidan | 68. ciozcan   | 69. cizquigun | 70. ciezque(en)zan |
|               |               |               |                    |
|               | 71. gauzquion | 72. gauzquien |                    |
|               |               |               |                    |
| 73. cidac     | 74. cioc      | 75. ciguc     | 76. ciec           |
|               |               |               |                    |
|               | 77. nauquioc  | 78. nauquiec  |                    |
|               |               |               |                    |
| 79. cizquidac | 80. cizquioc  | 81. cizquiguc | 82. cizquiec       |
|               |               |               |                    |
|               | 83. gauzquioc | 84. gauzquiec |                    |

*Las tres activas mistas puras en 2.<sup>a</sup> persona*

|          |           |             |
|----------|-----------|-------------|
| 85. cera | 86. aizan | 87. aiz(ac) |
|----------|-----------|-------------|

*Las 16 activas mistas recipientes*

|            |            |            |            |
|------------|------------|------------|------------|
| 88. zac    | 90. zatzu  | 92. zayo   | 94. zugu   |
| 89. zan    | 91. zat    | 93. zatzue | 95. zaye   |
| 96. zadan  | 97. zayon  | 98. zagun  | 99. zayen  |
|            |            |            |            |
| 100. zadac | 101. zayoc | 102. zuguc | 103. zayec |

Hemendik aurrera, bizkaierazkoetan bezala, Arruebarrena jaunak berriro jartzen ditu era guztiok, aditzaren partizipioari -a edo -ac gehituaz, honela, berak *pasivas* deitzen dituen erak sorterazten dituelarik. Noski; lehen ere aipaturiko arrazoiengatik ez ditugu hemen berretzen.

## GREGORIO ARRUEBARRENAK ARGITARA GABE UTZI ZUEN...

Lantxo honen hasieran aipaturiko tauletan agertzen diren aditz formak orain arte jarritakoak besterik ez dira, beraz, zer esanik ez, ez ditugu berri z ipiniko. Gure asmoa hauxe besterik ez da izan, hots, gipuzkoar idazle honek zerabiltzàn erak azaltzea, agian zenbait probetxu atera daitekeelakoan.

Azkenez, liburuaren amaieran, partizipioei eta *concordancia vizcaina* delakoari buruzko kontsidero batzuk egiten dauzkigu egileak; ez oso zorionekoak, hala fede.

### Azken oharra

Ez genuke lantxo hau bukatu nahi, Arruebarrenaren aditz estudio honetaz beste zenbait kontsiderazio egin gabe. Aspaldi honetan ikustera ohiturik gauden gramatika konbentzionalen aurrean, harrigarria dateke halako aberastasun ugari bat topatzea aditz sailean bederen. Egia esan, gramatikalari modernoentzat ba dirudi lehengo bi pertsona pasiboekiko forma datiboa ez direla inon aditz trantsitiboetan.

Egia da, aita Altunak bere liburuan<sup>3</sup> dioenez, forma horik guti usatuak izan direla euskara idatzian, eta agian, hizkuntza guztietan, norbaiti eman, kendu, saldu, erosi, ukatu eta abar, *zerbait* egiten zaiola gehienbat, eta ez *norbait*. Honek frogatzen duena zera da, aditz forma guztiak ez dutela hizkuntzaren barnean maiztasun eta usadioa bera, baina ez, inola ere, «hain beharrezkoak ez direla».

Inguruko erdaretan ere ez dira, noski, are maiztasun ugariagoz erabilten horien esaldi kideak —Voltaire-ren *Candide*-tik Ibon Sarasolak egin dako itzulpenean «ezin bestean» halako era batzuk sartu «behar» ukantzen— baina gaztelaniaz *me ha denunciado al patrón, me entrego a ti* edo *te me ha robado*, eguneroako bizitzan gutitan erabili arren<sup>4</sup>, sistema logiko baten barnean daude eta behar direnean erabil daitezke. Euskaraz ere ba dira kontzeptu horietarako aditz era egokiak, baina ez gipuzkeraz. Euskalki honetan forma horik, mintzatzaileek aldez aurretik ezaguturiko eta sistema koherente batetan eraturikoak ez direnez gero, ez dira inola ere existitzen, beraz, hizkuntzaren barnean ez dadukate lekurik, eta formaz batera, kontzeptua bera ere hutsik gelditzen da. Ba dakigu batzuek nola konpontzen duten arazo hau, hots, datiboa gabe (-ri), alatiboa (-gana) erabiliaz, baina berau ez da beti posible eta bestalde ihespide bat besterik ez da, aditz sistema ahul batek bere hutsuneak tapatzeko erabilia.

(3) *Euskal Aditza. Batua? ... Baturakoa*, 67. orrial. *Etor*, Bilbao, 1971.

(4) Erdi Haroko gaztelanian ere ez dira exenploak falta. Hona hemen, kasualitate hutsez Talaverako artziprestearen Corbacho-tik ateratako esaldi bat: ¡Ay, huevo mío de la meajuela redonda, de la cáscara tan gruesa! ¿Quién me vos comió?

## XABIER KINTANAK

Bestetik ere, forma hauen maiztasuna, duda gabe, *natzaio, gatzaizkizu* eta pasibo-datibo hauen parekoa da, baina, nik dakidalarik, orain arte ez du inork proposatu, ez batasunaren izenean ez eta aurretik ere, halako formak, gutitan erabiltzen direlarik, euskaratik baztertu behar liratekeela.

Hori gertatuko balitz, hots, forma horien baztertzea, hizkuntzaren sistima osoa, denboraz, bide beretik tartekatzen eta arrakalatzen hasiko litzateke, nik uste, eta zeren, *aitari ekarri narauko* ez esateagatik *aitari ekarri nau* edo *aitagana ekarri nau* zilegitzat hartzen diren, arrazoi berbera dagoke *aitari ekarri diot* —en ordez, *aitari ekarri dut* edo eta *aitagana ekarri dut* esan dezagun. Bestetik, kasu honetan bai esan ahal litekeela euskara ez dela Europako beste edozein hizkuntzatan ezin hobeki adieraz daitekeen gauzá adierazteko trebe eta gai, nolabait, Unamunori arrazoia emanaz. Eta zer esanik ez, dialekto konkretu batetan falta direlako —edo eta zeharo irregularrak direlako — euskara idatzia eskasia horretara eramatea ez litzateke kondena egokia.

Bizkaian, neronek egindako ikertzeetan, *nautzu, zautso* (honetan ere -z gabe!) eta honelako beste formak ez daude zeharo ahaztuak eta ba dira oraino zenbait gazte halakoak entzun dituenik, Mungia ingurueta batez ere. Gernika aldean ere ez dira horrelako erak arrotz egiten eta mintzatzean ezin hobeki ulertuak dira.

Azkenez, pentsatzeko dugu ea orain arte euskaraz ukana dugun literatura «aberats»ean forma horik gutitan agertu direlako arrazoia, egiazko baliokoa den ala ez. Shakespeare, Cervantes, Voltaire edo eta Goethe baten jeinuko autore bat ukana bagenu —eta Jainkoak ai liotsa lehen bait lehen letorren! — agian ez ziratekeen forma horik hain gutitan ikusiko.

Antzeko zerbait esan daiteke datiboetan bizkaierako formek —lapurtar eta zuberotar eren gisara — aditz aktibo-pasiboetan duten bikoiztasunaz. Ohart gaitezen, kasu batez, Arruebarrenaren eskemetan azaltzen diren forma hauetaz: *jon* (9.) / *deunaa* (36.), *joc* (13.) / *deubaa* (35.); baina gipuzkerazkoetan, aldiz: *diñ* (9.) / *diñ* (36.), *dic* (13.) / *dic* 35.). Dakikegunez. Lapurtar eta Zuberotar euskalkietan, bizkaieraren antzera, berezketa bera egiten da hika eta datiboen artean: *dik* / *d(er)auk*, *din/d(er)aun* eta *dik/d(er)eik*, *din/d(er)-ein*. Larresoro jauna izan zen, oker ez banago, gipuzkeraren urritasun hau lehenik aipatu zuena, 1968.eko *Euskera* aldizkaria eta haren liburu *Sustrai bila* lekuko<sup>5</sup>.

(JOANNES ETXEBERRI TALDEKOAK)

XABIER KINTANAK

(5) LARRESORO, *Sustrai bila*, Irakur Sail, Donostia, 1970.